Galdakaoko baserriko tresnen inguruan

Gorane Intxaurraga

gointxa@euskalnet.net

Abstract

This article is about life in the baserri (typical Basque house) and its characteristics, particularly related to the Galdakao area. In addition, the article displays a sample of the vocabulary used in the baserris of that area.

Laburpena

Artikulu hau baserriko bizitza eta horren ezaugarrien ingurukoa da, batez ere, Galdakaori dagokionean. Horrez gain, bertako baserriko lexikoaren atal baten berri ere ematen da.

Hitz gakoak: Galdakao, etnografia, lexikoa, baserria.

.

1. Sarrera

Artikulu honetan baserri munduaren inguruan arituko gara. Zeintzuk ziren bizimodu horren ezaugarriak eta nola aldatu diren. Ondoren Galdakaon jarriko dugu arreta eta bertako egoeraz gain, baserrian erabiltzen zen lexikoaren inguruan arituko gara. Hala ere, zenbait kasutan hemen aipatutakoak ondoko herrietara eta Euskal Herri osora ere heda daitezke.

2. Baserriaren egoera lehen eta orain

2.1. Iragana

Jendea baserriak ematen zionetik bizi zen, hau da, lurretik jasotako produktuetatik eta baserrian zituzten animalietatik. Oro har, bizimodu buruaskia zen.

Baserrian bi modutako lanak egiten ziren: nekazariena eta abeltzainena. Nekazarien lana sedentarioa zen; abeltzainena, ordea, nomada. Hala ere, nekazariak biak egiten zituen, hau da, aldi berean nekazari eta abeltzain zen eta horregatik soroa lantzeaz gain animaliak (behiak, astoa, ahuntzak, oiloak...) ere bazituen.

Animaliak, orokorrean, ondo zaintzen ziren eurak baitziren baserriko bizitzaren oinarrietako bat. Behiak esnea emateko, haragitarako, txahalak izateko ziren, eta baita baserriko lan astunak egiteko, hau da, egurrez, satsez, belarrez beteta zeuden gurdiak eramateko edo lurra lantzeko erabiltzen ziren tresnak eramateko.

Txerria animalia estimatua zen guztia aprobetxatzen zaiolako, baita belarriak eta buztana ere; eta erraz galtzen ez diren hainbat jaki egin daitezkeelako: txorizoa, urdaiazpikoa... Animalia gizendu eta txarribodetan hil egiten zen.

Oiloetatik arrautzak hartzen zituzten eta salda goxoak egiteko ere erabiltzen ziren. Kapoiak (oilasko irenduak) ondo gizendu ostean, baserriaren ugazabari oparitzeko edo jateko izaten ziren.

Horiez gain, bazeuden beste animalia batzuk ere: astoa zama garraiatzeko erabiltzen zen; untxiak jateko izaten ziren; eta baserri inguruko sasiak jaten zituzten ahuntzak jateko ere izaten ziren.

Esan bezala, animaliak ziren baserriko bizitzaren oinarrietako bat, bestea, lurra zen.

Lurra prestatu egin behar zen, landu, haziak erein, belar txarrak kendu, ureztatu eta parasitoetatik babestu.

Lurrak ematen zituen oinarrizko elikagaiak jasotzen ziren iraupeneko ekonomia aurrera eraman ahal izateko. Hala ere, gauzak ez dira horrenbeste aldatu eta oraindik lehen jasotzen ziren landareak jasotzen dira: indabak, artoa, azalorea, porrua, tomatea, piperrak, patatak...

Fruta-arbolak ere izaten zituzten: sagarrondoak, madariondoak, pikondoak... Frutak konpota edo marmelada egiteko erabiltzen ziren. Sagarra eta mahatsa, horrez gain, edariak egiteko erabiltzen ziren. Esaterako, sagardoa, txakolina edo pitikina[1].

Beraz, eguneroko bizitzarako beharrezkoa zen guztia egiten zen baserrian.

2.2. Oraina

Baserritar munduan aldaketa ugari izan dira azken hamarkadetan baina garrantzitsuena izan daiteke, nekazari eta abeltzainentzat ohiko bizimodua zena jarduera ekonomiko izatera igarotzea.

Baserriko jendeak inoiz ez die berrikuntzei ezetz esan eta bizimodu hori mendez mende apurka-apurka aldatuz eta garatuz joan da. Hala ere, XX. mendeko azken hamarkadetan aldaketa horiek guztiak bizkortu egin dira: lehen animaliek garraiatzen zituzten gauzak,

[1] Sagardoa egin ondoren geratzen diren hondakinak urarekin nahastuz egiten muztioaren antzeko edaria. Hilabete inguru baino lehen edan behar da, bestela alperrik galtzen baita.

 © Mendebalde Kultura Alkartea, 2003

orain traktoreak daude lan horretarako; lehen eskuz egiten ziren gauzetarako makina ugari daude...

Gaur egun goitik behera aldatu dira baserriak, ustiapen gehienetan, abereak antzekoak dira, makineria berdin-berdina da eta prozedurak estandarizatuta daude.

Baina honek guztiak badu bere alderdi txarra ere. Euskal Herriko nekazaritzako baserriak hilzorian eta desagertzear daude. Dirudienez galera horren oinarrian, nagusiki, belaunaldi gazteek jarduera horrekiko erakusten duten interes urria dago, beren aurrekoek hainbeste urtetan landutako arloari jarraipena emateko gogo eskasa. Hala ere, badira beste arrazoi batzuk, besteak beste, arlo horretako ustiapenek merkatu berrietara egokitzeko dituzten zailtasunak eta hiriak nekazariari eta lanerako erabiltzen duen lurraren aprobetxamenduari eskaintzen dizkion aukera erosoagoak. Itxuraz, etorkizun hurbil batean nekazaririk gabeko eskualdeak ezagutuko ditugu.

3. Galdakaori dagokionean

3.1. Galdakaoko egoera

XX. mendeko erdira arte Galdakaon biztanle gehienek baserri munduarekin zuten zerikusia. Hala ere, berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadan industriak gora egin zuen eta horren ondorioz etorkin ugari hasi ziren bertan bizitzen. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdi aldera izandako krisiak ordura arteko demografia hazkundea gelditu zuen eta laurogeiko hamarkadan ikaragarri igarri zen. Azken bi hamarkadetan hazkundeak jarraitu du, batez ere etxebizitza aldaketen prozesuaren ondorioz.

XX. mende hasieratik gaur arte, beraz, gauzak asko aldatu dira. Aldaketa horien ondorioz gaur egun, lehen sektorean lan egiten duen jende gutxi dago.

3.1.1. Kokapena

Galdakao Bizkaiko herria da. Iparraldetik, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko udalekin egiten du muga; hegoaldetik, Zaratamo eta Zeberiorekin; ekialdetik, Zornotza, Lemoa eta Bediarekin; eta mendebaldetik, Etxebarri eta Basaurirekin. Muturtxo batean Bilborekin ere egiten du muga.

3.1.2. Hizkeraren kokapena

Bonaparteren sailkapena kontuan hartuta, Galdakaoko hizkera Bizkaiera dela ezin uka genezake eta azpieuskalkiari dagokionean, aldiz, Mendebaldekoa da.

Bertako hizkerak Arratiakoaren antz handia dauka. Bestalde, lurralde handia dela kontuan izanik, auzune batzuek badute Txorierrikoarekin nolabaiteko antza.

3.1.3. Ezaugarri fonetikoak

Ikus ditzagun Galdakaoko hizkerak fonetikoki dituen berezitasunak.

Oro har, Mendebaldeko euskaran gertatzen den bezala, Galdakaon ere txistukarien neutralizazioa eman da. Horrela, hiztunek ez dituzte bizkar-hobietako igurzkari ahoskabea [s] eta goi-hobietako igurzkari ahoskabea [s] bereizten. Kasu honetan bigarrenaren alde egiten da. Afrikatuei dagokienean, ez dituzte goi-hobietako afrikatu ahoskabea [ç] eta bizkar-hobietako afrikatu ahoskabea [c] bereizten, bigarrenaren alde egiten delarik.

Kasurik gehienetan bustidura ematen da, hau da, *i* bokalaren ondoren doazen kontsonanteak sabaiko moduan ahoskatzen dira eta batzuetan *i* hori desagertu egiten da. Adibidez, *iñok, baño, eskutillea, itillea, makalloa...*

Yod hotsari dagokionean, hiztunak gehienetan sabaiko afrikatu ozena ahoskatzen du. Esaterako, *yan, yoan...*

Azentua zenbait kasutan bi hitz bereizteko erabiltzen da. Adibidez, *baldéa*[2] eta *báldea*[3].

Bokal-harmonia, hau da, fonema batek aldamenekoa ukitzean jasaten duen aldaketa, euskaraz gertatzen den bezala, atzeranzkoa da eta lehen mailan geratzen da. Horrela, *abisirie, alperrarrie, atxurre...*

4. Baserriko lexikoa

Esan bezala, hainbeste mendetan hain garrantzitsua izan den baserriko bizimodua desagertzear dago eta horrekin batera ohitura asko eta asko. Horrek, era berean, lexiko galera ere badakar, hitzak erabiltzen ez diren heinean ahaztu egiten direlako. Horregatik komenigarria da berandu baino lehen horiek jasotzea, esaerak dioen bezala, alperrik baita ura joanda presa egitea.

Honekin esan nahi da herri handi eta hirietan bizi garenok sarri ez dugula baserri munduarekin harremanik eta horrekin batera, lexiko hori erabiltzeko aukerarik, baina jaso egiten badira, inoiz behar izanez gero, izango da nora jo.

4.1. Lexiko sorkuntza

Hizkuntzak etengabe eraberritzen doaz gizarteak unean-unean dituen beharrizanei erantzunez. Hori dela eta, hizkuntza bizirik dagoen seinale da lexiko--sorkuntza.

[2] Apalez egindako armairu irekia.
[3] Batik bat isurkariak garraiatzeko tresna. Goiko aldea irekia du eta behekoa baino zabalagoa izaten da. Kirtena ere badu.

4.1.1. Maileguak

Esan bezala, hizkuntzek lexikoa eguneratzeko baliabide ezberdinak erabiltzen dituzte. Mailegua da horietako bat.

Maileguak, arrazoiren bategatik hizkuntzan errotzen diren kanpoko hizkuntzetatik hartutako hitzak dira. Hartzen duen hizkuntzak, egoki iruditzen zaizkion egokitzapenekin (idazkera edo esanahi aldaketak eginda) bere lexikoa aberasten du.

Maileguak jasotzeko arrazoi ugari egon daitezke. Besteak beste, hizkuntzaren prestigioa, aldaketa sozio--ekonomikoa, praktikotasuna edo bigarren hizkuntza hori ikastearen eragina.

Maileguak aspaldikoak izan daitezke eta mailegu diren kontzientzia galdu egiten da. Berriak hartzeko, aldiz, beti izaten da nolabaiteko erreparoa.

Zaharren artean hor dugu adibidez *golde* hitza. Latinetiko hitz honek egokitzapen fonetikoak izan ditu eta gaur egunean jende askok euskal hitz bezala hartzen du, jatorriz horrela izan ez arren.

Hala ere, maileguak erabiltzeak izan dezake arriskuren bat. Hala nola, erdal jatorrizko hitzek berez hizkuntzak duen hitza ordezkatzea.

4.1.2. Hitz hibridoak

Beste zenbaitetan hitz hibridoak aurkitzen ditugu. Hitz konposatuak izaten dira; ataletako bat euskal jatorrizkoa izan ohi du eta bestea erdal jatorrizkoa.

Hitz hibridoak dira adibidez, *esku-zerra, kebrantatxur...*

4.1.3. Polimorfismoa

Gauza bera izendatzeko hitz bat baino gehiago erabiltzen direnean ematen da polimorfismoa.

Polimorfismo lexikoak ugariak izan ohi dira. Esaterako, *tolet / larako; kirten / asta; moñorratz / burukorratz...*

Horrelakoetan bi gauza izan daitezke: bata euskal jatorrizkoa izatea eta bestea ez; edo bestela, antzeko gauzak izanda, bien artean denborarekin galdu den ñabarduraren bat izan dela noizbait.

4.2. Sailkapena

Baserriko lexikoa modu askotara sailka daiteke. Orain aurkezten dena modu bat da. Besteren batek, agian, beste era batera egingo luke.

Atal honetan, Galdakaoko hiztunengatik jasotako zenbait tresna, euren esanahia eta batzuen argazki edo irudiak ikusiko ditugu arloka sailkatuta.

1. Sororakoak (handiak eta txikiak)
2. Ganadua
3. Arotz lanetarakoak
4. Sukaldea
5. Arrantza
6. Argia
7. Haria
8. Otzarak

4.2.1. Sororakoak

- **ARPEL:** Bere pisuarekin lurrean dauden mokilak zapaldu eta lurra leuntzeko balio duen forma zilindrodun harria. Normalean alde bietan zulo bana izaten du eta bertan ardatz bat jarri ohi da. Guzti hori pertika luze baten bidez eramaten dute animaliek arrastaka. *Sin. arpelarri*. Ikus 1. irudia.

  Etim.: Corominasek *alperrarri* eta *arpel / alper* hitzak aztertu egin zituen. Hasiera batean "*piedra perezosa*" zela uste izan zuen. Hala ere, gehiago aztertuz, *arpel* hitza *arri + bil* (harri biribil) konposiziotik datorrela, ondorioztatu zuen. Horrek, bestalde, *arpil* eman beharko luke eta ez *arpel*. Baina, agian egon izan zen *arpil* moduko formaren bat, horrela azalduko baikenuke *arpilmeta* (harri zutabea) hitza.

1. irudia

- **ARE:** Hazia erein baino lehen lurra lantzeko erabili ohi den tresna. Luzeran lau ohol izan ohi ditu (kanpoko biak luzeagoak) eta zabaleran txikiagoak diren bi ohol. Armazoiaren aurreko aldea atzekoa baino itxiagoa da. Oholetatik lurrera burdinazko iltze edo untze moduko batzuk ditu. Aurreko muturrean arrastaka eroateko balio duen katea bat jartzen zaio eta atzean burdinazko barra edo uztai bat lurra landu behar duen pertsonak handik eusteko. Ikus irudi 2.

  Etim.: Rohlfsek diosku gaskoierako *áret* formatik mailegatutako hitza dela. Corominas ere uste berekoa da. Era berean, iritzi berekoak dira, gaskoierako hitz hori zelteratik (**áratrom*) datorrela esatean.

2. irudia

- **ATXUR:** Lurra zulatu, landu eta jorratzeko erabiltzen den tresna. Zurezko kirten bat izan ohi du eta puntan burdinazko xafla lau eta aho zorrozduna.

  Etim.: *Aitz* hitzaren eratorri bezala hartzen dute Campion, Uhlenbeck, Bouda eta Bonapartek, besteak beste. Hala ere, Mitxelenak aipatzen du *aitzur* hitzak ez duela zertan oinarrian *aitz* hitza eduki.

- **GOLDE, GOLDA:** Ildoak eginez lurrak lantzeko balio duen nekazaritzarako tresna. Punta burdinazkoa du. Forma ezberdinetakoa izan daiteke. Batzuek txirrinkak dituzte besteek ez; batzuekin bira eman daiteke, besteekin ez... *Sin. makiña*. Ikus 3-4. irudiak.

  Etim.: Latineko *culter* hitzetik dator. Bestalde, Mitxelenak, tresna hau aurre-erromatarra zela uste zuen.

3. irudia

4. irudia

- **GRADA:** Itaillak egiten zuen lan bera egiten du burdinazko tresna honek ere, hau da, belarra dagoen lekuan lurra harrotzen zuen. Lauki itxurako egitura batean, trabesetara burdinazko ziri lodi bi jartzen dira eta horietan biribil itxura duten burdinazko xaflak. Eskuekin oratzeko helduleku bi ere baditu. Tresna hau izendatzeko normalean forma plurala erabiltzen da: gradak. *Sin. areinglesa, aretartara, balleriña, karramarro, pipeburrin, tartailla.* Ikus 5. irudia.

  Etim.: Latineko cratis hitzetik dator. Asturias, Galizia eta Portugalen erabiltzen dute (grade).

5. irudia

- **IGITI:** Landareak, garia, belarra... ebakitzeko balio duen aho makurrezko kirtena duen tresna. Ikus 6. irudia.

  Etim.: Mitxelenaren ustez, hitz konposatua da, bigarren elementua gai izan daitekeelarik.

6. irudia

- **ITAILLA, ITILLE:** Erein behar den garaian lurra lantzeko erabiltzen den tresna. Zabaleran metro bat inguruko bi zutoin ditu. Pertikari lotuta dagoena bestea baino apur bat laburragoa da. Zutoinetatik lurrera *itillortz* izeneko burdinazko untze luzeak izaten dira. Tresna hau izendatzeko normalean forma plurala erabiltzen da: *itillek*. Ikus 7. irudia.

  Etim.: Agudek oinarrian it- (idi) erroa ez ote dagoen galdetzen dio bere buruari.

7. irudia

- **JORRADAR:** Oro har, animalia batek bakarrik eraman dezakeen tresna. Arto, arbi... bitarteetan lurra harrotzeko balio du. Oinarrizko egiturak v forman bi trabes ditu eta bi pertika luze. Egurrezkoa da baina burdinazko hortz luzeak ditu. *Sin. jorrari, porkera*. Ikus 8. irudia.

  Etim.: Hitz konposatua da: jorra(tu) + adarra.

8. irudia

- **KARRETILLA:** Zamak garraiatzeko erabiltzen zen eskuzko ibilgailua. Aurrean egur edo burdinazko txirrinka bat dauka eta egurrezko egiturak lauki itxura.

  Etim.: Gaztelaniatik hartuta dago eta hau, jatorri galiarra duen latineko carrus hitzetik eratorria da.

- **KODAIÑA, KODAÑA:** Belarra mozteko tresna aho zabal luzexka eta egurrezko kirten luzeduna. Berdangiloaren antzekoa den arren, azken hau baino txiki eta zabalagoa da.

  Etim.: Mitxelenak gaztelaniako guadañatik eratortzen du (ko- > go- <gwa-). Germaniarreko waidanian hitzaren aldakiren batetik omen dator.

- **LAI, LAIA:** Lurra iraultzeko bi hortz luzezko aintzinako lanabesa. Altzairu edo burdinazko muturra edo urkila (67 cm-rainokoa) eta egurrezko kirtena (24 cm-rainokoa) ditu; guztira 7-9 kg bitarteko pisua. Laiariak indarrez altxatzen badu metro erdiraino sar dezake lurrean. Laiari bakoitzak bi laia erabiltzen ditu; bata ezkerreko hankarakoa eta bestea eskumarakoa, biak ezberdinak direlarik. Normalean hirutik sei pertsonara jartzen dira ilaran; indarrik gutxiena dutenak erdian. Ikus 9. irudia.

  Etim.: Lhandek dioenez, hitz bera erabiltzen da bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Hala ere, Schuchardtentzat zaharrena euskarakoa da. Corominas ere uste berekoa da, euskaraz dauden aldakiei begiratuta jatorrizkoa bertakoa da. Mitxelenak jaso egiten du aintzinako irlanderaz erabiltzen zela *lagya zahar batetik zetorren láige hitza baina kritikatu egiten du hizkuntza zeltekin egon daitekeen erlazio hori.

9. irudia

- **MARKADOR:** Egur luze batean koilara itxurako burdinazko atalak ditu. Egur luze horri lotuta, alde batetik uztarriari lotzen zaion pertika dauka, bestetik pertsona batek eramateko heldulekua. Tresna honek gero haziak erein ahal izateko ildoak egiten ditu.

  Etim.: Gaztelaniatik dator. Corominasek jatorri germaniarra (*markan) egotzi zion.

- **NARRA:** Soroan mokilak hausteko, gurutzatzen diren zumitzez eginiko tresna. *Sin. trapa*. Ikus 10. irudia.

  Etim.: Corominasen ustez, gaztelaniak beranduago hartu zuen euskal jatorrizko hitza da. Esaten duenez, ezin da latinetikoa izan.

10. irudia

- **UNTZENAR:** Lurra harrotu eta lisatzeko erabiltzen zen egurrezko tresna zabala. Alde bat untzez beteta dago eta bestean, untzearen buruak egon arren, laua da. Ikus 11. irudia.

  Etim.: Hitz konposatua da honakoa: untze + narra.



11. irudia

4.2.2. Ganadua

- **ARRAN:** Basa ganaduari lepotik zintzilik jartzen zaion txilin handia. Formaz lauki luzea da. Ikus 12. irudia.

12. irudia

- **BURDI, GURDI:** Abereek tiratuz, txirrinka gainean zamak garraiatzeko erabiltzen den egurrezko ibilgailua. Ikus 13. irudia.

  Etim.: Mitxelenak diosku jatorrizko hitza gurdi zela, baina askotan gertatu ohi den bezala, hasierako g > b egin zen. Hala ere, hau ez da hasierako posizioetan bakarrik gertatzen. Adibidez, suge > sube. Hitz honen jatorria ikerlari askok aztertu duen arren, ez dirudi azalpenak oso egokiak direnik. Hitzen konposiziorako erabiltzen diren formak gur(t)- eta bur(t)- dira.

13. irudia

- **BUSTURRI, BUSTERRI:** Idi zein behiei, lanean aritzeko zein burdia eramateko kokotaren gainean jartzen zaien egurrezko pieza sendoa. Honek behi edo idi biak elkarrekin lotzen ditu. Ikus 14. irudia.

  Etim.: Hitz honek izan dezake uztartu aditzarekin zerikusirik. Hasierako b- hori galtzea ere ez da hain gauza arraroa, azken batean egunero erabiltzen ditugun zenbait hitzetan ere ematen baita: bare > are; bere > ere...

14. irudia

- **DUNBO:** Basa ganaduari lepotik zintzilik jartzen zaion txilin handia. Ahoa oinarria baino estuagoa du eta itxuraz, arrana baino forma biribilagoa. Ikus 15. irudia.

15. irudia

- **TXARRANTXA:** Abereei azalean eduki dezaketen buztina kentzeko erabiltzen den burdinazko orrazi modukoa. *Sin. sarrantxa.*

4.2.3. Arotz lanetarakoak

- **BIRBIKI:** Egurrean zuloak egiteko erabiltzen den tresna. Puntan, egin nahi den zuloaren arabera alda daitekeen espiral itxuradun atala du. Tresna burdinazkoa bada ere, baditu egurrezko zatiak. Bi eskurekin erabiltzen da: bata tinko mantentzen da, besteak alde batetik irekita dagoen lauki baten itxura du eta azkenekoan egurrezko gauzak zulatzeko atala du.

  Etim.: Frantsesetik (veberquin) hartutako hitza da. Hau, era berean, neerlanderatik (wimmelken) dator. Azken hau, germanierako aditz bati (wimmlen) atzizki txikigile bat (-ken) erantsiz eratorritako hitza da. Ingelesez, birbiki esateko wimble hitza erabiltzen da.

- **GURGULLU:** Igitai itxura duen tresna. Hala ere, igitaia baino txikiagoa da eta inausteko zein abarkak egiteko erabiltzen da, besteak beste. Ikus 16. irudia.

16. irudia

- **TRONTZA, TRONTZASERRA, TRONTZADORA:** Zuhaitz enborrak biren artean ebakitzeko, alde banatan heldulekuak dituen zerra handia. Ikus 17. irudia.

  Etim.: Hitz konposatua da: trontza + zerra. Trontza hitza gaztelaniako tronco hitzetik dator eta hau latineko truncusetik.

17. irudia

4.2.4. Sukaldea

- **BAI:** Azpian sare zuloduna eta inguruan egurrezko forma biribila duen tresna. Egurrezko ataletik heldu eta astinduz, irinari, izan ditzakeen zaborrak kendu eta bereizteko erabiltzen den tresna. *Artza* eta *galbaea* baino txikiagoa da. Ikus 18. irudia.

  Etim.: Rohlfs eta Boudak latineko vannum hartzen dute hitz honen jatorritzat. Mitxelenak, ostera, ez du uste zuzenean latinetik hartutako hitza denik, bokalen arteko n geminatuak n soila izango bailuke emaitzatzat eta ez elisioa. Bere ustez, erromantzeetako van edo antzeko formaren batetik igaro zen, eta protoeuskaraz, *bane hitza sortu zen. Horrela, frantsesez adibidez, vanner (bahetu) aditz forma erabiltzen da. Corominasen ustetan, ostera, hitz hau ez dator erromantze hizkuntzetatik, bere jatorria ezezaguntzat jotzen du. Agud eta Tovarrek agertzen dutenez, ekialdetik datorkigun hitza da. Lehenik Frantzian eta bere lurraldeetan erabiltzen zen, eta gero mendebalderantz zabaldu zen. Horrela hitzaren eboluzioa honakoa litzateke: van > *bane > bahe / bage > bae / bai. Konposizioan ere agertzen zaigu hitz hau. Adibidez, galbae hitzean.

Ikus 18. irudia.

- **BASIÑ:** Odolki edo txorizoak egiteko erabiltzen zen buztinezko ontzi zabala. Batzuetan, goiko aldean marrazkiak izaten zituen. *Sin. barreñu*. Ikus 19. irudia.

  Etim.: Schuchardtek dioenez, hitz hau latinetikoa da (bacchinum). Mitxelenak, honen aldaki guztiak aztertuta, uste du bazegoela *bacina edo antzeko hitz bat. Corominasen ustez, ordea, katalanaren (bacía) mailegu bat baino ez da eta honen eboluzioa honako hau: baccinum > bacín > bací. Agudek frantses dialektoetan, antzeko formak (gaskoiz basí, okzitanoz bací, frantsesez bassin...) ere badaudela dio.

Ikus 19. irudia.

- **KANTIN:** Esnea edukitzeko erabiltzen zen metalezko ontzi luze eta zilindro itxurakoa.

- **LAPIKO:** Janaria egosteko balio duen lurrezko, portzelanazko zein metalezko ontzia. Ikus 20. irudia.

  Etim.: Ez itxuragatik ezta banaketa geografikoagatik ere, ez du ematen erromantzetiko hitzekin zerikusirik duenik. Schuchardtek hitz hau italierazko *laveggio* edo latineko *lapideus* hitzekin erkatzen du, besteak beste.

Ikus 20. irudia.

- **LARATZ(U):** Beheko sutako tximiniatik zintzilika egoten den katea, amaieran galdara edo *gandalla* esekitzeko kakoa duena. Ikus 21. irudia.

  Etim.: Latineko *lares*etik omen dator. Schuchardtek hitz honen eboluzioa egiten du: *labatz* > *laatz* > *laratz* < *llares* (gaztelaniaz). Tovarren ustez argi dago hitz honen latindar jatorria.

21. irudia

4.2.5. Arrantza

- **BENAKA:** Arrainak harrapatzeko tresna. Tximeleta-sare itxura duen arren, horrek baino sare txikiagoa dauka eta sarearen beheko aldean, gurutzatuta, burdinazko ziri bi, uretan sartzerakoan tinko gera dadin. Heldulekutzat egurrezko kirten luze bat du. Ikus 22. irudia.

22. irudia

- **BUTRINO:** Erreketan erabiltzen den arrantzarako tresna. Sarez eginiko egitura biribila du eta barruan janaria jartzen da. Lau uztai inguru ditu lau maila eginez eta lehenengotik azken uztaira alde bakoitzean luzetara palu luze bat darama. Zuloa hasieratik bukaerara dago, hala ere, maila bakoitzean gero eta estuagoa da, hau da, lehenengo mailaren hasieran zabala da eta ixten doa, bigarren mailaren hasieran berriro ere zabala da eta berriro ere ixten doa... Ikus 23. irudia.

  Etim.: Corominasek dioenez, gaztelaniako buitre hitzetik (hau, era berean, latineko vûltur, vulturisetik dator) eratorria da. Horrela, XIII. mendeko testu batean, buytrino hitza agertzen da.

23. irudia

- **ESPAR(A)BEL:** Errekan arrantzan egiteko erabiltzen den sare zabala. Puntan kordel bat dauka. Hori ahoan hartu eta sarea zabalean botatzen da. Kordelari tiratuz gorantz igotzerakoan sarea itxi egiten da. Ikus 24. irudia.

  Etim.: Alemania aldean egiten zen hizkuntza frankoan omen du jatorria (*sparwâri). Aleman zaharreko sparwâri, alemaneko sperber edo nederlanderako sperware hitzetan ikus daiteke. Hitz honek berez gabirai esan nahi du. Hasiera batean arraroa gerta badaiteke ere, badu bere arrazoia. Dirudienez, garai batean ehiztariek hegaztiak harrapatzeko gabiraia botatzen zuten bezala botatzen omen zen sare hau ere.

24. irudia

4.2.6. Argia

- **FAROL:** Ingurua argitzeko dingilizka erabili ohi den argiontzia. Normalean, beiraz estalitako burdinazko egitura laukia izaten du eta erdian argizarizko kandela. Ikus 25. irudia.

  Etim.: Corominasek aipatzen duenez latinetiko pharosetik dator eta hau, era berean, grekoko ? ? ? ? ? hitzetik. Jatorriz, Alexandriako badiako Pharos irlan zegoen itsasargiagatik ezaguna zen eta beronek eman zion izena.

Ikus 25. irudia.

- **KARBURO, KARBURONTZI:** Karburua berez sua egiteko erabiltzen diren harria izan arren, argia egiteko ontziari horrela esaten zaio. Botila itxura izanagatik ez dauka muturrik. Bertan karburua sartu zaio eta ura eransten zaio. Ontziak puntan badu irteten den gasa erregulatzeko balbulatxo bat. Ikus 26. irudia.

  Etim.: Gaztelaniatik hartua da eta honek bere garaian latinetik (carbo) jaso zuen.

Ikus 26. irudia.

- **KURTZULU:** Argia egiteko erabiltzen zen tresna. Metalezkoa da eta atzeko aldea zabala eta aurrea estua ditu. Ez da oso handia. Ikus 27. irudia.

  Etim.: Corominasek dioenez, aurre-erromantzean egon zitekeen *crosu batetik eratorritako *crosiolutik dator.

Ikus 27. irudia.

4.2.7. Haria

- **ARDATZ:** Haria egiteko prozesuan erabiltzen den tresna. Artilea garbitu ondoren, multzo bat egin eta apurka-apurka bertatik tiratuz eta atzamarrekin biribilduz lortzen den hari firua ardatzean biltzen da. Itxura ezberdinetakoak daude, gehienak egurrezko ziri luzeak izan ohi diren arren. Antzeko eginkizunerako erabiltzen dira *txabilla* eta *txoria* ere. Ikus 28. irudia.

  Etim.: Corominasek komentatzen duenez, adartxu (adar hitza + atzizki txikigilea) hitzean dago honen jatorria.

28. irudia

- **KARDA:** Artilea harrotu, orraztu eta garbitzeko tresna. Lan horretarako bi behar direnez (bata ezkerreko eskurako eta bestea eskumakorako) hitza pluralean erabiltzen da (*kardak*). Egurrezko atal karratua da; alde batean burdinazko ziri edo untze modukoak ditu eta beste aldea laua da. Asta ere badu. Ikus 29. irudia.

  Etim.: Corominasek, bai gaztelaniako bai frantsesezko cardar aditzaren eratorritzat hartzen du. Bestalde, beranduago cardo izango zen latinetiko cardusetik ere etor daiteke.

29. irudia

- **TXABILLA:** Goruan haria eginez, jirabiraka mataza biltzeko erabiltzen den tresna. Zilindro itxura daukan arren mutur biak askoz zabalagoak ditu eta erdian kako txiki bat. Ikus 30. irudia.

30. irudia

4.2.8. Otzarak

- **OTZARA:** Gurutzatutako zumitzez egindako sestoa. Luzanga izaten da eta zabaleran, aldetik aldera asta bat dauka. Normalean emakumeek erosketak egiteko, gauza txikiak garraiatzeko izaten zen edo bendejereak besoan bere barazkiak merkatura eroateko erabiltzen zuen. Ikus 31. irudia.

  Etim.: Azkueren ustez hitz konposatua da: ogi + sara(n). Izan daiteke zara edo zaran gaztelaniako cesto hitzaren parekoa izatea.

31. irudia

- **SESTAÑA:** Astoari bastaren gainean zama eramateko albo bietan ipintzen zaizkion sesto handi eta luzangak. Bi izan ohi direnez pluralean erabiltzen da: *sestañek*. *Sin. astotzara*. Ikus 32. irudia

32. irudia

4.3. Etnotestuak

Atal honetan Galdakaoko hiztunengandik jasotako zenbait pasarte ikusiko ditugu.

Lehenengo honetan bedarmetak nola egiten diren azaltzen zaigu.

> *Bueno ba bedarrak. Bedarra san, ba ganaduen yatekoa, ganaduentzako yatekoa san bedarra. Da bedarrak, ba, udebarrien artze sien bedarrak se neguen, bedar gitxi e(g)uan da, leyek eta erre ta, bedar gitxi egotesan. Da lelengo bedarrak, ba, berdean koiten sien, freskotan, ganadueri emoteko. Da kodañeagas ebaite san bedarra, edo igitiegas, da sestoak, sestotan kargeu, edo karretillen edo, edo karroan edo, ba, mille modure eroate sien. Da sestoatan kargeta san da, sestoak kargeu ta, yeusi estiten, olango palusko sotz bat esaten yakon kako sotz bat, da ra! Sartzean... goitipera, da arexek sujetetauen, ba, burdien surrunek burdie sujetetauen moduen ba, sestoa sujetetako ixetesan a. Da berdetan eroate sien ba, ganadueri. Gero udea etorte sanean, ba or, San Juan ingerutik eurrera, ba bedarra siketu eite san, ebai, da siketu. Goxean ebai, da gero, ortzakaz altzikitu, askatu, altzeu te, siketutesanean batu da, geuetan apur bet pillotuite san, ba, geueko iñontzak edo mostu eztien. Da gero, gero batzea san, eskutillekas, eskutillekas batu, da sokakas ein kargea ta ba, sabaire edo eroatesan. Beste asko, [...] meta batzu(k) eitesien. Sartze san palu bet erdi erditik, da metea sapaldute, aregas eite san. Da orretakoxe, bedarrak orretakoxe.*

Bigarren honetan soroa lantzeko erabiltzen ziren tresnetako batzuk aipatzen zaizkigu.

> *Goldea da makiñea buelta em otekoa [...]. Da gero áreak sien, ba, areatuteko, bedarra kentzeako. Da areak sien kama barik, areak. Areak, itillek, goldea... Da markadora soloa marketako. Orrik sien erramintak soloan ibilten sienak. Narra be bai, laiak, atxurre, kakoa... [...] Baia lenaukoak areak, goldeak eta itillek. Da gero narra.*

Hirugarren hau garia errotara nola eramaten zen azaltzen zaigu.

> *Gariegas Lemoara. Da gero eiten giñun, ba, eralgi. Lemoan bertan eralgite eroate giñun, ademas. Bertan errotan ego(n) san eralgiteko be ta, an eralgi, te saku betera urune, bestera saie. Da olan bueltetan gintzesan danakas. Da kendu eiteskun, onenbesteko killo bat edo, seuse kenduteskun. Paguen toketan dana. Ba bos killo edo sei killo igual, bertan itxi bear ixite giñusen. Eiñen, bear eiñen orde. Da tranbien sartu, te Gallora, Gallon koiu karrotxue ta, ala... etzera.*

5. Azkena

Beraz, amaitzeko, esan beharra dago honako artikulu honetan baserri munduaren zatitxo bat baino ez dela jasotzen. Bestalde, arlo honetan oraindik bilketa lan ugari dago egiteko.

6. Aipamenak

Agud, M. – Tovar, A. (1989-1995). *Diccionario etimológico vasco*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Corominas, J. (1980-1991). *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madrid: Gredos.

Etniker Euskalerria (2000). *Atlas etnográfico de Vasconia: Ganadería y pastoreo en Vasconia*. Bilbo: Labayru Ikastegia.

Intxaurraga, G. (2002). *Galdakaoko baserriko tresnen hiztegitxoa*. Bilbo: Galdakaoko Udala.

Udalaitz, D. (2001). Baserria desagertzeko zorian, *Argia* 1827: 12-14.

Zumalde, X. (2002). *Sustraiak: tras las raíces de nuestro pueblo*. Bilbao: Serv. Gráf. Leku SL.